



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**TOLOSAKO UDALAREN
EMAKUMEEN ETA GIZONEN
ARTEKO BERDINTASUNERAKO
ORDENANTZA**

M^a Ángeles BARRÈRE UNZUETA

Jone M. HERNÁNDEZ GARCÍA

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA.....	5
I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak.....	7
1. artikulua. Helburuak eta aplikazio eremua	7
2. artikulua. Printzipio orokorrak	8
3. artikulua. Eskumenak mugatzea.....	8
II. KAPITULUA. Ordezkaritza politikoa eta udal organoen osaera.....	9
4. artikulua. Ordezkaritza edo osaera orekatua.....	9
5. artikulua. Eraginpeko organoak.....	9
6. artikulua. Laguntzeko neurriak.....	10
III. KAPITULUA. Berdintasunerako zerbitzua.....	11
7. artikulua. Sorrera.....	11
8. artikulua. Adskripzioa, langile espezializatuak eta lankidetzak.....	11
9. artikulua. Egiteko orokorrak.....	11
10. artikulua. Egiteko espezifikoak.....	12
IV. KAPITULUA. Berdintasunaren aldeko udal politika sustatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko egiturak.....	15
11. artikulua. Berdintasunerako departamentu arteko Batzordea	15
12. artikulua. Erakundeen arteko harremanak	16
V. KAPITULUA. Udal administrazioiko langileak prestatzea eta trebatzea.....	16
13. artikulua. Berdintasunerako prestakuntza eta trebakuntza.....	16
14. artikulua. Neurriak.....	17
VI. KAPITULUA. Parte hartzea politikan eta gizarte bizitzan: Berdintasunerako Kontseilua.....	18
15. artikulua. Berdintasunean parte hartzea.....	18
16. artikulua. Berdintasunerako Kontseilua sortzea.....	18
17. artikulua. Osaera, eskumenak eta funtzionamendu-erregimena...	19
18. artikulua. Parte-hartzea bultzatzeko diru laguntzak.....	19
VII. KAPITULUA. Berdintasunerako Plana.....	20
19. artikulua. Definizioa.....	20

20. artikulua. Esku-hartzeko esparruak eta neurri espezifikak.....	20
21. artikulua. Egitea eta kontrolatzea.....	21
22. artikulua. Txostena.....	23
23. artikulua. Onarpena.....	23
24. artikulua. Indarraldia.....	23
25. artikulua. Urteko jarduketa programak.....	24
VIII. KAPITULUA. Udal azterketa eta estatistikak.....	25
26. artikulua. Estatistikak eta azterketak egokitzea.....	25
27. artikulua. Estatistikak eta azterketak esleitzea.....	26
IX. KAPITULUA. Hizkuntza sexistarik eta estereotiporik ez erabiltzea.....	26
28. artikulua. Xedapen orokorra.....	26
29. artikulua. Aholkularitza eta kontrola.....	27
30. artikulua. Neurriak.....	27
X. KAPITULUA. Genero inpaktua udaleko araudi eta jardueran.....	28
31. artikulua. Definizioa.....	28
32. artikulua. Inpaktu potentziala.....	28
33. artikulua. Atzeraeraginezko inpaktua.....	29
34. artikulua. Ebaluatu beharrekoa	29
35. artikulua. Txostena egiteko jarraibideak.....	30
XI. KAPITULUA. Udal langileen eta zerbitzu-enpresetako langileen berdintasuna bai enpleguari dagokionez, bai bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari begira	30
36. artikulua. Xedapen orokorra.....	30
37. artikulua. Esparruak eta neurriak.....	30
XII. KAPITULUA. Lehiaketa eta kontratu publikoak.....	33
38. artikulua. Xedapen orokorra.....	33
39. artikulua. Neurriak.....	33
XIII. KAPITULUA. Diru laguntzak ematea	35
40. artikulua. Xedapen orokorra.....	35
41. artikulua. Neurriak.....	35
42. artikulua. Baldintzak.....	35
XIV. KAPITULUA. Komunikabideak.....	36
43. artikulua. Diru laguntzak.....	36

XV. KAPITULUA. Gizarte Zerbitzuak, zaintzak eta erantzunkidetasuna....	37
44. artikulua. Xedapen orokorra.....	37
45. artikulua. Jarduketak.....	37
XVI. KAPITULUA. Emakumeen aurkako indarkeria.....	38
46. artikulua. Definizioa eta jarduteko marko orokorra.....	38
47. artikulua. Neurriak egokitzea.....	39
48. artikulua. Zuzeneko arretaren printzipioa.....	39
XVII. KAPITULUA. Hiri- eta toki-plangintza.....	40
49. artikulua. Xedapen orokorra.....	40
50. artikulua. Politikak eta planak.....	40
XVIII. KAPITULUA. Etxebizitza.....	41
51. artikulua. Xedapen orokorra.....	41
52. artikulua. Jarduketak.....	41
XIX. KAPITULUA. Segurtasuna.....	42
53. artikulua. Xedapen orokorra.....	42
54. artikulua. Jarduketak.....	43
XX. KAPITULUA. Mugikortasuna eta garraioa.....	44
55. artikulua. Xedapen orokorra.....	44
56. artikulua. Jarduketak.....	44
XXI. KAPITULUA. Ingurumena.....	45
57. artikulua. Xedapen orokorra.....	45
58. artikulua. Jarduerak.....	46
XXII. KAPITULUA. Senidetzeak eta nazioarteko lankidetzak.....	46
59. artikulua. Xedapen orokorra.....	46
60. artikulua. Jarduketak.....	46
AZKEN XEDAPENA.....	47
Bakarra.....	47



ZIOEN AZALPENA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Euskal Autonomia Erkidegoko botere eta administrazio publiko guztientzat lehentasunezko helburu estrategikoa izango da. Baina, Nazioarteko, Europar Batasuneko, Estatuko eta Erkidegoetako zuzenbideak jasotako lege horrez gain, 2006ko maiatzean Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak eta bertako kideek (Euskadiko Udalen Elkarte- EUDEL dago horien artean) berdintasunaren aldeko araudi bat ezagutzera eman zuten, hain zuzen, Europako gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Tolosa, EUDELeke partaide izanik, Europar Gutun hori onartu duen udalerrietako bat da. EMAKUNDE eta EUDELen arteko hitzarmen bat sorburu duen Berdinsareako, hots, Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sareko partaide ere bada. Horrez gain, berdintasuna Tokiko Agenda 21 Ekintza Planean jasotako helburuetako bat da (2003ko irailean Udalbatzak onarturiko agiria); bertan 18. estrategia ardatzak udalaren politikan genero ikuspuntua txertatzea aurreikusten du.

Dena dela, Tolosak berdintasunaren aldeko konpromisoa orain arte aipatutakoak baino lehen ere izan du. Alde horretatik, nabarmentzekoa da, 2000. urtean sorturiko Berdintasunerako Batzordea; batzorde horrek sortu zuen Aukera Berdintasunerako Ekintza Programa Eragilea, III. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planaren



barruan. Hori gauzatzeko langile taldea kontratatu zen, eta 2004an Programa hori udalbatzan onartu zen.

Zalantzarik gabe, aipaturiko araudiek eta konpromisoek, eta Tolosan, 2006an eginiko berdintasunaren kulturari buruzko azterketak (azterketa horrek agerian uzten du zein arlotan den beharrezkoa eta premiazkoa neurriak hartzea), bultzada handia eman diote udaleko emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko politikari. Berdintasunaren aldeko bultzada eta konpromiso serio, berritu eta indartu horren harira sortu da, hain zuzen, Ordenantza hau.

Tolosako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren aldeko Ordenantza hau da, finean, arlo horretan udalak egin beharreko lanaren oinarritzko arauak biltzen dituen agiria; Agiri horrek, gainera, berdintasunari ematen zaion garrantzia erakusten du, udal-agendako ohiko gai bihurtzen baitu, politikaren gorabeherak direla-eta bazterturik geratu ezingo den gaia. Parekotasuna, inklusibitatea eta bizigarritasuna oinarri dituen berdintasuna garatzeko oinarritzko espaziotzat hartzen du udalerria; Berdintasun hori gaur egungo gizartean (baita Tolosan ere) erroturik dagoen bereizkeriarekin bateraezina da. Bereizkeria hori gainditu ahal izateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arau printzipioa garatu egin beharko da hainbat alderdi aintzat hartuta, araudiaren formulazioa simetrikoa baita, baina errealitatea ordea asimetrikoa, eta horrela, estereotipoak eta gizarte ereduak saihesteko – horien arabera emakumeei dagokie etxeko gauzez arduratzea eta gizonei eremu publikoaz arduratzea– legeak asimetria horri egokituko zaizkio. Horren guztiaren oinarrian emakumeen ekonomia maila eta gizartearen errekonozimendu txikiagoa dago.

Ordenantza honek 22 kapitulu eta hirurogei artikulua ditu, eta horien bitartez arautzen da emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko udalaren politika aktiboa; politika horrek udalaren egituraren eta funtzionamenduan, bai eta gizarteak eta herritarrek udalari buruz duten ikuspegian ere eragina du.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Helburuak eta aplikazio eremua.*

1. Ordenantza honek Tolosan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duen esparrua eta araudia ezartzea du xede, arlo horri dagokionez udalak dituen eskumenen barruan.

2. Hortaz, berdintasunarekiko konpromiso publikoa hartzeaz gain, Tolosako Udalak, gainerako erakunde publiko eta politikoei, erakunde pribatuei eta gizarte zibilak helburu bera abian jartzeko neurriak har ditzaten nahi du, eta horretarako bere kide diren erakundeekin lankidetzara bilatu du.

3. Ordenantza hau Tolosako Udala Administrazioari eta berarekin loturaren bat duten edo bere esku dauden erakunde autonomo eta publikoei aplikatuko zaie. Udalarekin lankidetzara hitzarmenak sinatzen dituzten edota Udalaren diru-laguntzaren bat jaso duten erakunde pribatuei ere aplikatuko zaie.



2. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Ordenantza honetan ageri diren udal Administrazioaren jarduera arautzen eta bideratzen duten printzipio orokorrak, 2005/4 Legearen 3.artikuluaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko EAEko botere publiko guztien jarduera arautu eta bideratu behar duten printzipioekin bat datoz: Tratu berdintasuna, aukera berdintasuna, aniztasuna eta desberdina dena errespetatzea, genero ikuspuntua kontuan hartzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rol eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkaritza orekatua, koordinazioa eta lankidetzeta.

2. Arestian aipaturiko printzipioak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005/ 4 Legearen 3.artikuluari zehaztu bezala interpretatu eta gauzatuko dira.

3. Aipaturiko printzipioetan gizon eta emakumeei buruz eginiko erreferentzia simetrikoa gorabehera, Ordenantza honetan printzipio horien arabera garatuko den udal politikak aintzat hartuko du gizarteak duen emakume eta gizonen arteko desberdintasunaren arazoak, bi sexuei eragiten badie ere, gehiago jasaten dutela emakumeei.

3. artikulua. *Eskumenak mugatzea.*

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduerari 2005/4 Legearen 7.artikuluari eta gainerako lege aplikagarrietan adierazitako eskumenen arabera gauzatuko da. Hortaz, Ordenantza honetan ageri diren



esku-hartze esparruez gain legearekin bat datozen beste hainbat ere egon daitezke.

II. KAPITULUA

Ordezkaritza politikoa eta udal organoen osaera

4. artikulua. *Ordezkaritza edo osaera orekatua.*

Ordezkaritza edo osaera orekatua izan dadin emakume eta gizonen presentzia bermatuko da, eta sexu bakoitzeko pertsonen kopurua ez da ehuneko hirurogeitik gorakoa edota ehuneko 40tik beherakoa izango.

5. artikulua. *Eraginpeko organoak.*

1. Ordezkaritza edo osaera orekatua egon beharko da hauteskunderen ondoren osaturiko Udal gobernuan; baita Batzordeen osaketan, izendapen libreko karguetan eta bestelako organoetan ere.

2. Hauteskunderen Erregimen Orokorrari buruzko Legearen 44. bis artikulua aplikatuz, udal-hauteskunderetan aurkeztuko diren hautagai zerrendatan emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izango da, sexu bakoitzeko hautagai kopurua ezingo da ehuneko berrogei baino txikiagoa izan.



3. Ordezkaritza edo osaketa orekatua ez da kontuan hartuko Ordenantza honen 7.artikuluaren iragartzen den Berdintasunerako kontseiluan; Kontseilu honen izaera berezia dela-eta, bertan emakumeek lehentasuna izango dute.

6. artikulua. *Laguntzeko neurriak.*

1. Ordezkaritza edo osaketa orekatua bultzatzeko eta defendatzeko asmoz, udal gobernuak beharrezko neurriak hartuko ditu:

- a) Hautagaiak eta hautetsiak izan diren emakumeekiko estereotipoen menpeko jokabiderik edo bestelako jazarpenik ez da onartuko.
- b) Hautetsiek beren bizitza pribatua, lana eta bizitza publikoa bateratu ahal izan ditzaten lortzea, esaterako, beren funtzioetan behar bezala parte hartzen lagunduko dieten ordutegiak eta lan sistemak finkatuz, eta seme-alabentzako edo beren kargu dauden pertsonentzako haurtzaindegiak jarritz.

2. Horrez gain, ordezkariak edo osaketa orekatua erakundearen funtzionamendu demokratikora guztiz egokitzeko, udal gobernuak erabakiak organoetan eta beharrezko prozeduren bitartez hartuko direla bermatuko du.



III. KAPITULUA

Berdintasunerako Zerbitzua

7. artikulua. *Sorrera.*

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005/4 Legearen 10.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak Berdintasunerako Zerbitzua sortuko du; organo horrek genero transbertsalitatea bultzatuko du udalaren politika eta jardueran. Horretarako, Zerbitzuko arduradunek egokitzat jotzen dituzten udal batzorde guztietan parte hartzeko aukera izango dute.

2. Berdintasunerako Zerbitzua urte beteko epean osatu beharko da, Ordenantza hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

8. artikulua. *Adskripzioa, langile espezializatuak eta lankidetzak.*

Berdintasunerako Zerbitzua Alkatetza-Lehendakaritzari atxikiko zaio, eta berdintasunean adituak diren langileak arituko dira bertan; langile horiek eta udaleko gainerako langileek elkarlanean jardungo dute.

9. artikulua. *Egiteko orokorrak.*

1. Berdintasunerako Zerbitzua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez udal jarduerak bultzatzeaz, programatzeaz eta aholkularitza lana egiteaz arduratuko da.



2. Bestalde, Udaleko gainerako sailekin batera, ebaluazioaz arduratzen den erakundeak beharrezkotzat jotzen duenean ebaluazio lanean parte hartuko du.

10. artikulua. *Egiteko espezifikoak*

Tolosako Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak, dagokion lurralde eremuan, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 10.2 artikuluari jarraiki, besteak beste, honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Berdintasunaren arloko programazio edo plangintza diseinatzea, baita haren jarraipena egiteko mekanismoak diseinatzea ere.
- b) Ekintza positiborako neurri bereziak diseinatzea eta sustatzea.
- c) Udal administrazioak bere politika, programa eta jarduera guztietan genero ikuspuntua txerta dezan bultzatzea.
- d) Udal Administrazioari atxikitako langileek emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan zer prestakuntza behar duten aztertzea, eta kasu bakoitzak behar duen prestakuntza mota eta parte hartzeko irizpide eta lehentasunak zehaztea.
- e) Aholkularitza eta lankidetzak Udal Administrazioaren menpe dauden Zerbitzuekin eta gainerako organo eta erakundeekin emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan.



- f) Udalerrian bertan bizi diren herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen desberdintasun egoeraren inguruan, baita berdintasuna sustatzeko beharrezko neurrien inguruan ere, bazterketa anitzeko egoerak aintzat hartuta.
- g) Udal Administrazioak programak eta zerbitzuak bultzatzea, egokitzea eta sortzea, bazterketa anitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte eskubideak balia ditzaketela bermatzeko. Funtzio hori eta aurrekoa gauzatzeko, Zerbitzuaren lana beste arlo batzuetakoarekin koordinatu beharko da, bakoitzari dagokion eskumenen eremuan.
- h) Emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, lanekoa eta familiako uztartzeko baliabide zein zerbitzu soziokomunitarioen sorrera eta egokitzapena sustatzea eta proposatzea.
- i) Zure lurralde-eremuko bazterketa-egoerak detektatzea eta horiek amaitzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- j) Berdintasuna lortzeko gizonen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko neurriak abian jartzea
- k) Berdintasunaren kultura sortuko duten balioak eta jarrerak sustatzen dituzten feminitatearen eta maskulinitasunaren eredu berriak sortuko dituzten estrategiak diseinatzea, Tolosa espazio partekatua, barne-hartzailea eta bizigarria izan dadin pertsona guztientzat.
- l) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko ekarpenak egiten dituzten erakunde publikoekin eta pribatuekin parte hartzeko eta



lankidetzako harremanak eta moduak ezartzea. Zerbitzuak loturak sortuko ditu, batez ere hezkuntzan, prestakuntzan eta pertsonen gizarteratzearen arloan lan egiten duten organismo eta erakundeekin; bere ustez balio, eredu eta erreferente berri eta berdintzaileagoak sustatzeko bereziki prestatuak baitaude.

- m) Emakumeek, erabakiak hartzeaz arduratzen diren tokiko esparruetan parte har dezaten ahalbidetuko duten neurri espezifikoak bultzatzea eta eratzea.
- n) Emakumeek historian eta udalerrriaren garapenean egin duten lana ikustea eta aintzat hartzea ziurtatuko duten neurriak eta estrategiak diseinatzea eta abian jartzea, eta bereziki, emakumeek tokiko memoria gordetzera eta hedatzera bideraturiko elementuetan presentzia dutela sustatzea (kale-izendegia, monumentuak eta abar).
- o) Emakumeen eta gizonen berdintasun-alorrean eskumena duten erakundeekin, organoekin eta unitateekin elkarrizketak egitea, eta, bereziki, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearekin.
- p) Beste edozein dagozkion eskumenen eremuan.



IV. KAPITULUA

Berdintasunaren aldeko udal politika sustatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko egiturak

11.artikulua. *Berdintasunerako departamentu arteko Batzordea.*

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko udal politikaren eraginkortasuna udal gobernuaren sailen arteko jardun koordinatuaren mende dago. Koordinazioa bultzatu, kudeatu eta gainbegiratzeko helburuarekin sortu da Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea.

2. Berdintasunerako Sailen arteko Batzordeko presidente alkatea izango da, eta berak deituko du. Batzordeko kide izango dira, halaber, berdintasunerako udal politikan parte hartzen duten arloen ordezkariak.

3. Batzordearen bilerak sei hilean behin egingo dira, baina udal aginteek, edo haien kideek, edo Berdintasunerako Zerbitzuak egokitzat jotzen duenean bileren arteko tarte hori moztu egin ahal izango da.

4. Batzordeen bileretan Berdintasunerako Zerbitzuko langileak egongo dira, baita arlo ezberdinen laguntzarako langile teknikoak ere, egokitzat jotzen bada.



12. artikulua. *Erakundeen arteko harremanak.*

Berdintasunerako udal politika beste udalerritako eta gainerako erakunde publiko eta pribatuetako politikarekin modu koordinatuan bultzatzeko helburuarekin, udal gobernuak beharrezko ahaleginak egingo ditu loturei eusteko, baita dagoeneko eratuta dauden sareetako presentziari eusteko ere; bestalde, etorkizunean sor daitezkeen beste sare edo koordinazio formula batzuetan parte-hartzea sustatzeko ahaleginak ere egingo ditu.

V. KAPITULUA

Udal administrazioko langileak prestatzea eta trebatzea

13. artikulua. *Berdintasunerako prestakuntza eta trebakuntza.*

1. 4/2005 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoa betez, eta jardun administratiboan genero ikuspegia modu eraginkorrean integratzeari dagokionez, udal gobernuak oinarrizko prestakuntza, progresiboa eta etengabekoa bermatuko die bere langileei emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan.

2. Berdintasunerako Zerbitzuko lanpostuak beteko dituzten langile teknikoek berriazko trebakuntza jasoko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Trebakuntza hori, ahal dela, unibertsitate mailakoa izango da, edo dena dela, antzeko prestakuntza mailakoa.



3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioari buruzko edukiak eta haiek jardura administratiboan aplikatzeari buruzkoak eskatuko dira udal enpleguko lanpostu batean sartu ahal izateko hauta prozesuetako aztergaietan.

14. artikulua. Neurriak.

Aurreko artikulua lehenean atalean ezarritakoa ahalbidetzeko, tokiko gobernua, Berdintasun Zerbitzuaren aholkularitzarekin, honako neurri hauek hartuko ditu, gutxienez:

- a) Bere zerbitzurako langileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan duten prestakuntza mailari buruzko diagnostikoak egitea, baita erantzukizun politikoak dituzten pertsonen sentsibilizazio mailari buruzkoak ere. Diagnostiko horiek legealdi bakoitzeko lehenean egingo dira.
- b) Diagnostikotik abiatuta prestakuntza planak egitea bere zerbitzura dauden langileentzat; eta sentsibilizazio planak egitea erantzukizun politikoa duten pertsonentzat.
- c) Bertako langileen ordutegiak egokitzea eta berdintasunerako prestakuntzari eskaini dioten denbora baloratzea.



VI. KAPITULUA

Parte hartzea politikan eta gizarte bizitzan:

Berdintasunerako Kontseilua

15. artikulua. *Berdintasunean parte hartzea.*

1. Tolosako emakumeek eta gizonek gobernuan eta udaleko bizitza publikoan berdintasunean parte hartzeko eskubidea dute.

2. Parte-hartze horri dagokionez, emakumeek eta gizonen dagokion informaziorako sarbide bera dutela bermatuko da, baita jarduteko edo kontsulta bat jasotzeko aukera bera dutela ere. Horretarako aintzat hartuko da emakumeek eta gizonen informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko duten sarbide maila ezberdina, eta ahal denean, emakumeentzat berariazko informazio eta parte-hartze prozesuak egiteko aukera.

16. artikulua. *Berdintasunerako Kontseilua sortzea.*

Emakumeek eta gizonen gobernuan eta udal bizitza publikoan baldintza beretan parte-hartzen dutela ahalbidetzeko, errazteko eta bermatzeko, Berdintasunerako Kontseilu bat sortu da.



17. artikulua. *Osaera, eskumenak eta funtzionamendu-erregimena.*

Berdintasunerako Kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu araudia Udaltzak zehaztuko du Berdintasunerako Zerbitzuak proposamena egin ostean; betiere, Toki administrazioaren, eta bertako emakume elkarte edo taldeen parte-hartzea bermatuko da.

18. artikulua. *Parte-hartzea bultzatzeko diru-laguntzak.*

Aurreko artikuluan aipaturiko Kontseiluaren eskumenei kalterik egin gabe, eta herriko esparru guztietan emakumeen presentzia, parte-hartzea eta errekonozimendu handiagoa bultzatze aldera, xede hori duten jarduerak egiteko asmoa duten elkarte eta erakundeen diru-laguntza eskaerek lehentasuna izango dute.

VII. KAPITULUA

Berdintasunerako plana

19. artikulua. *Definizioa.*

Berdintasunerako Plana, emakumeen eta gizonen arteko udal politikaren garapena eta zehaztapena aldiari-aldiari islatzen duen dokumentua da, eta Ordenantza honetan du bere oinarria.

20. artikulua. *Esku-hartzeko esparruak eta neurri espezifikoak.*

1. 2005/4 Legearen 15.3 artikuluari kalterik egin gabe, Berdintasunerako planak jarduteko neurriak garatuko ditu Ordenantzan aurreikusitako edozein esku-hartze arlorako, baita interesa izan dezaketen beste batzuetarako ere.

2. Dena dela, Planeko neurri zehatzak izango dira ondorengo esparruetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bilatuko dutenak; esparru horietako bakoitzean plan edo programa espezifikoak egin ahal izango dira:

- a) Udalerriko garapena eta enplegua.
- b) Kirol jarduera eta ohitura osasuntsuak bultzatzeko heziketa.
- c) Kultura sortzea, ekoiztea eta hedatzea.



- d) Askotariko bereizkeria eta gizarte bazterketa (emakume ezinduei, gaixotasun, menpekotasun edo patologiaren bat duten emakumeei, gizartean gaizki ikusita dagoen lanen bat duten emakumeei edo preso dauden edo preso egondako emakumeei, immigrantei,... laguntzeko plan edo programak).
- e) Herriko elkartegintza.
- f) Tolosako emakumeen jabekuntza eta parte-hartze aktiboa herrian.

3. Gainera, Berdintasunerako Planak edo hortik sorturiko plan zehatzek adinaren faktorea ere oso kontuan izan beharko dute eta, bereziki, haurren, gazteen eta hirugarren adinekoen beharrei erantzun beharko diete.

21. artikulua. *Egitea eta kontrolatzea.*

1. Berdintasunerako Zerbitzuak diseinatu eta bultzatuko du Berdintasunerako Plana, bai eta haren jarraipenari eta ebaluazioari begirako lanak ere; horretarako, indibidualki edota kide deneko mankomunitateetako beste udalerriekin batera lan egiteko aukera aintzat hartuta.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, bere helburuak eta jarduera ardatzak zehazteko orduan Berdintasunerako Planak Euskal Autonomia Erkidegoko edo Gipuzkoako Berdintasunerako Erakundeek zehazturiko jarraibideak izango ditu oinarri; baldin eta emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean Tolosak dituen behar zehatz eta lehentasunen kalterako ez badira.

3. Berdintasunerako Plana egiteko Tolosako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diagnostiko bat egingo da; horri esker, jakin ahal izango da udaleko politikarekin eta eskumenekin bat datozen lehentasunak



zeintzuk diren, eta lehenetsun horiek antzemandako beharrekin, interesekin eta arazoekin bat egiten duten.

4. Diagnostikotik abiatuta lehenetsunak ezarri ostean, Berdintasunerako Planean beste hainbat gauza zehatu beharko dira. Hona hemen horietako batzuk: Helburu nagusia, helburu espezifikoak, ardatz estrategikoak, ardatz estrategikoetan bilduriko lan esparruak, eta esparru bakoitzean garatu beharreko programak.

5. Berdintasunerako planaren kontrola egiteko prestatu beharreko jarraipen txostenak nolakoak izango diren, zer ebaluazio irizpide erabiliko diren eta lan hori egiteko zer baliabide eta tresna izango dituen zehaztuko da.

6. Sailen Arteko Batzordeak Berdintasunerako Planaren prestaketa prozesuan aktiboki parte hartuko du, batez ere, honako hau lortzeko:

- a) Batzordean ordezkariak teknikoak duten sailen inguruko atalak zehazteko.
- b) Berdintasunerako Planaren eta Udaleko beste Plan edo dokumentu estrategikoetan bildutako eduki eta helburuen arteko egokitzapena.
- c) Berdintasunerako Planaren berri emateko eta gizartean zabaltzeko Komunikazio Plan bat abian jartzeko aukera aztertzea.



22. artikulua. *Txostena.*

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2005/4 Legearen 15.4 artikuluari jarraiki, Berdintasunerako Plana onartu baino lehen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Planari buruzko txostena egin beharko du.

23. artikulua. *Onarpena.*

1. Berdintasunerako Zerbitzuak proposamena egin ostean, Tolosako Udaltzari dagokio Berdintasunerako Plana onartzea edo atzeratzea. Atzeratu beharra badago horren txostena egin beharko du Berdintasunerako Zerbitzuak.

2. Planaren onarpena edo luzapena gehienez urte betera egingo da udal gobernua osatzen denetik zenbatzen hasita.

24. artikulua. *Indarraldia.*

Berdintasunerako Plan bakoitza udal hauteskunderen osteko udal gobernua iraun bitartean egongo da indarrean; Planak berak, bertan arrazoiak azalduta eta Berdintasunerako Zerbitzuak txostena egin ostean, iraupen laburragoa izango dela aurreikusi ezean.



25. artikulua. *Urteko jarduketara programak.*

Berdintasunerako Planeko jarduerara programak urtebeteko iraupena izango dute; haien hasiera eta amaiera aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren hasiera eta amaierarekin bat etorriko da.

Jarduerara Programa bakoitzaren hasieran adieraziko da Plana abian den bitartean egin beharreko ekintzak, baliabideak eta lortu nahi diren emaitzak zeintzuk diren. Azalpen gisa:

- a) Zerbitzu bakoitzak egin beharreko jarduerak zeintzuk diren eta horietako bakoitza Planeko zer jarduerari eta helbururi dagokion adierazi beharko da.
- b) Programaturiko jarduerara bakoitzaren aurrekontua ere adierazita egongo da, betiere jarduerara horiek Udalarik gasturik eragiten badiote.
- c) Jarduerara bakoitza egiteko zer bitarteko eta giza baliabide behar diren adierazi beharko da.
- d) Jarduerara bakoitza nori zuzendua dagoen, bere helburu espezifikoak zeintzuk diren eta, ahal denean, helburuen betetze-maila adierazi beharko da.

Programaren amaierako dokumentuan, emandako aurrerapausoei, gizartean izandako eraginari eta aurrera begira hobetu beharreko alderdiei buruzko txostena bildu beharko da.



VIII. KAPITULUA

Udal azterketa eta estatistikak

26. artikulua. *Estatistikak eta azterketak egokitzea.*

1. Ordenantza honetan jasotako arauak eraginkortasuna izan dezaten eta eguneroko jardunean genero ikuspuntua txertatu dela bermatzeko, Udalak, bere eskumen esparruan, honako eginkizunak bete beharko ditu:

- a) Udalak egindako estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sistematikoki genero ikuspuntua kontuan hartzea.
- b) Estatistikak egiterakoan emakumeen eta gizonen rolen, egoeren, baldintzen, helburuen eta beharren arteko desberdintasunak zeintzuk diren hobeto ezagutzen lagunduko duten adierazleak erabiltzea.
- c) Esku-hartze arlo ezberdinetan diskriminazio anitza sortzen duten aldagaiak ezagutzea ahalbidetzen duten beharrezko adierazle eta mekanismoak txertatzea eta diseinatzea.
- d) Lagin zabalak egitea aldagai guztiak sexu aldagaiaren arabera ustiatu eta aztertzeke aukera egon dadin.
- e) Datu horiek ondo aztertzea esku-hartze esparru desberdinetan emakumeek eta gizonek dituzten egoerak, baldintzak, helburuak eta beharrak zeintzuk diren jakiteko.



- f) Definizio estatistikoak berrikustea, eta behar denean moldatzea, emakume guztien lana baloratu eta aintzat hartzeko eta emakume talde batzuk negatiboki estereotipatuak izan ez daitezen.

2. Udalak nahitaezkoa du horiek betetzea, baina horietakoren bat betetzen ez badu txosten baten bitartez azaldu beharko ditu horren arrazoiak eta Udaleko Idazkaritzako arduradunaren onespena jaso beharko du.

27. artikulua. *Estatistikak eta azterketak esleitzea.*

Udalerriko azterlanak eta estatistikak zerbitzu kontratuen bidez egiten direnean, esleipendun enpresak aurreko artikuluan bildutako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuko du.

IX. KAPITULUA

Hizkuntza sexistarik eta estereotiporik ez erabiltzea

28. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Tolosako Udalak ez du hizkuntza sexistarik erabiliko ez berak zuzenean egiten dituen agiri eta euskarrietan, ezta hirugarren pertsonen edo erakundeen bitartez egiten dituenetan ere.



2. Sexu baten nagusitasun edo gutxiagotasunean, edota emakumeen eta gizonezkoen rol estereotipatueta oinarrituriko aurrejuzku, jarduera, esaera eta irudiak saihestuko ditu. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokan bi sexuen estereotipoak kaltegarriak direla adierazteko eta jendea kontzientziatzeko jarduerak eta kanpainak egingo ditu. Eginkizun horretan helburu nagusietako bat herriko jai eta ospakizunei begirakoa izango da.

29. artikulua. *Aholkularitza eta kontrola.*

1. Berdintasunerako Zerbitzuaren ardura izango da hizkuntzaren erabilera edota estereotipo ez sexisten inguruko zehaztapenak egitea eta zalantzak argitzen laguntzea.

2. Hori guztia betetzen dela ziurtatzearen, Zerbitzuak bi ardura izango ditu; batetik, udaleko jardueretan hizkuntzaren erabilera sexistak atzeman eta erabilera ez sexista bultzatzea eta, bestetik, herrian gertatzen diren jarduera estereotipatuak saihestea; horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte udaleko gainerako sailek ere.

30. artikulua. *Neurriak.*

Tolosako Udalak, hizkuntzaren erabilera ez sexista bultzatu eta jarrera eta jokabide estereotipatuak baztertzeko asmoz, Berdintasunerako Zerbitzuaren bitartez, kontzientziazio kanpainak egingo ditu, ikastaroak



emango ditu eta herriko elkarte eta erakundeei beharrezko dutenean aholku emango die.

X. KAPITULUA

Genero inpaktua udaleko araudi eta jardueran

31. artikulua. *Definizioa.*

Genero inpaktua, udaleko arautegi edo jarduerak emakumeen eta gizonen berdintasun edo desberdintasunean eraginik duten jakiteko egiten den aurretiko edo osteko ebaluazioari esaten zaio Ordenantza honetan.

32. artikulua. *Inpaktu potentziala.*

Administrazioko arau edo jardueraren bat abian jarri baino lehen, organo eragileak proposamen horrek emakumeen eta gizonen egoeran izan ditzakeen ondorioak aztertu beharko ditu. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak baztertzearen eta berdintasuna bultzatzearen helburuari begira proposaturiko administrazio arau edo jarduerak ondorio on edo txarrak izango dituen aztertuko du.



33. artikulua. *Atzeraeraginezko inpaktua.*

Genero inpaktuaren ebaluazioa, Ordenantza hau onartu aurretiko beste Ordenantzei ere aplikatuko zaie. Atzeraeraginezko ebaluazio hori Berdintasunerako Planaren urteroko Programen helburu bihurtuko da pixkanaka eta hori garatzeko ekintzak prestatuko dira.

34. artikulua. *Ebaluatu beharrekoa.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 19.2 artikuluari kalterik eragin gabe, eta lege horren beraren 18.2 artikuluan xedatutakoaren babesean, ordenantza proiektuak abiarazi aurretik zer genero inpaktu izango duten aztertuko da. Otsailaren 14ko 5/2007 Ebazpenaren eranskinaren lehen jarraibidearen arabera, aurretiko ebaluazioa egingo zaie honako hauek arautzen dituzten administrazio jardueren proposamenei ere:

- a) Udalerriko enplegu publikoan lanpostuak lortzeko, betetzeko eta promozionatzeko hauta-proben deialdiak eta, nahiz eta deialdi horiek normalean arautu ez, hautatze probetarako epaimahaiaren osaera zehazten dutenak.
- b) Udalak sustaturiko edo diruz lagunduriko sariak emateko epaimahaien eraketa.
- c) Kultur eta/edo arte ondasunak eskuratzeko organoen eraketa.



35. artikulua. *Txostena egiteko jarraibideak.*

Tolosako genero eraginaren txostena egiteko aurreko artikuluan aipaturiko eranskinean agertzen diren jarraibideak erabiliko dira .

XI. KAPITULUA

Udal langileen eta zerbitzu-enpresetako langileen berdintasuna bai enpleguari dagokionez, bai bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeari begira

36. artikulua. *Xedapen orokorra.*

Tolosako Udalak, bere langileei emakumeek eta gizonen laneko alor guztietan –lanaren antolamendua eta lan baldintzak barne– izan beharreko berdintasuna aitortzen die. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko eskubidea aitortzen die emakumei zein gizonei, bai eta lan duintasuna eta segurtasuna izateko eskubidea ere.

37. artikulua. *Esparruak eta neurriak.*

Aurreko artikuluan aipaturiko eskubideak garatzeko, udal gobernuak beharrezko lege-neurriak hartuko ditu, baita ekintza bereizle positiboak ere,



hainbat jarduera esparrutan. Konpromiso horrek, gutxienez, honako jarduera hauek bilduko ditu:

- a) Udaleko eta zerbitzuak ematen dituzten enpresetako enpleguari dagozkion prozesu eta politiken inguruko diagnostia egitea eta berraztertzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak epe egoki batean desagerrarazteko; azterketa horietan honako hauek hartuko dira kontuan:
- soldata berdintasuna; pareko balioa duten lanek soldata bera izatea barne;
 - soldatak eta ordainsariak, ordainketa motak eta erretiroak berraztertzeke neurriak;
 - promozioa eta lanean aurrera egiteko aukera berak bermatzen dituzten neurriak;
 - maila guztietan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua ziurtatuko duten neurriak, batez ere, goi mailatan eta zuzendaritzan;
 - generoan oinarrituriko lan banaketa desagerrarazteko eta langileek tradizioz beren sexuari ez dagozkion lanpostuak bete ditzaten bultzatzeko neurriak.
 - berdintasunean oinarritutako kontratazioa bermatzeko neurriak;
 - lan baldintzak egokiak eta osasunerako arriskurik gabekoak izatea bermatuko duten neurriak;
 - langileei eta sindikatuei kontsultak egiteko prozedurak, kontsulta eta negoziazio organismoetan emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izanik.



- b) Lantokian sexu jazarpena eta jazarpen sexista onartezinak direla publikoki adierazi eta debekatzea. Sexu jazarpena edo jazarpen sexistaren bat egon denaren susmoa edo salaketaren bat egonez gero, 2006ko urriaren 4ko ebazpenean adierazita dagoen prozedura aplikatuko da.
- c) Langile hautaketa, maila guztietan, herriko aniztasun sozial, ekonomiko eta kulturalaren araberakoa izatea.
- d) Bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko laguntza ematea honako hauen bidez:
- Norbait beren zaintzapean duten langileei lan-ordutegia euren beharretara egokitzeko aukera emango dieten politikak lantzea;
 - Gizonak, beren kargu dauden pertsonen beharrezko arreta eskaini ahal izateko baimenak, lizentziak eta absentziak eskatzeko dituzten eskubideak baliatzera bultzatzea, horretarako abantailak eskainiko dizkieten neurriak hartuta.

XII. KAPITULUA

Lehiaketa eta kontratu publikoak

38. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Tolosako Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko du bere lana gauzaterakoan, baita ondasun eta zerbitzuak ematean, produktuak erosteko kontratuetan, zerbitzuak eskuratzeko aukeretan eta lanak egiteari dagokionez ere.

2. Udalak, konpromiso hori bereziki kontuan izango du legez bere ardura den zerbitzu publiko garrantzitsu bat beste erakunde juridiko baten esku uzten duenean. Kasu horretan, Udalak kontratatzen duen erakunde publiko horrek (bere estatus juridikoa edozein delarik) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duela ziurtatu beharko du, Udalak egingo zukeen modu berean.

39. artikulua. *Neurriak.*

Aurreko artikuluan hartutako konpromisoa, aintzatespena eta bermeak betetzeko, Tolosako Udalak honako neurri hauek aplikatuko ditu, Berdintasunerako Zerbitzuari neurri horien egokitasunaren inguruan galdetu ondoren:

- a) Kontratu garrantzitsu bat sinatu behar duen bakoitzean, genero arloan eta berdintasuna bultzatzeari begira zer aurrerapauso lor daitezkeen aztertuko du. Horretarako, besteak beste, honako datu hauek hartuko ditu kontuan: erakunde horrek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren politikei dagokienez zer ibilbide egin duen, erakunde kolaboratzailea izatea edo enpresa bereizgarriren bat izatea (hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegorako 4/2005 Legearen 41. artikuluari, eta Estatuari begirako 3/2007 Lege Organikoaren 50. artikuluari jarraiki), bai eta proiektu teknikoa idazterakoan hizkuntza ez sexista erabiltzea ere.
- b) Kontratuaren xedapenek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna kontuan hartzen dutela bermatzea.
- c) Kontratuaren gainerako zehaztapen eta baldintzetan helburu horiek kontuan hartzea eta adieraztea.
- d) Ardura sozialetan zer aurrerapauso eman behar diren zehazteko Europako legeek eskaintza publikoen inguruan emandako botereak erabiltzea.
- e) Eskaintza publikoaz eta alokairu kontratuez arduratzen diren langileei eta aholkulariei beren lanean genero berdintasunari dagokionez kontuan hartu beharrekoak jakinaraztea eta horren inguruan sentsibilizatzea, gaiaren inguruko prestakuntza emanez.
- f) Kontratu nagusian azpikontratututakoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak bete beharko dituztela adierazi dela bermatzea.



XIII. KAPITULUA

Diru laguntzak ematea

40. artikulua. *Xedapen orokorra.*

Tolosako Udalerrian diru laguntzak emateko, Ordenantza honetako X. Kapitulan jasotakoaren arabera aurrez zer genero-inpaktu duen aztertzeaz gain, ondorengo bi artikuluetan agertzen diren neurri eta baldintzak ere bete beharko dira.

41. artikulua. *Neurria.*

Araudi honetan jasota dauden helburuak lortzeko ekintzak egiten dituzten elkarte eta erakundeak sustatuko ditu Tolosako Udalak, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 24 artikulua dioena betetzeko.

42. artikulua. *Baldintzak.*

Elkarteei, erakundeei eta taldeei diru-laguntzak ematerako orduan kontuan izango da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde zer konpromiso maila duten haiek, bai zuzendaritzari begira, bai egiteko asmoa duten jarduerari begira.

XIV.KAPITULUA

Komunikabideak

43. artikulua. *Diru laguntzak.*

1. Programazioetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun helburua kontuan hartzen ez duten komunikabideek ezin izango dute Tolosako Udalaren diru-laguntzarik jaso.

2. Komunikabideek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Hizkuntza sexistarik ez erabiltzea.
- b) Emakumeen parte-hartze aktiboa, bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatzea, edertasun kanonak eta bizitzako alor ezberdinetan dituzten funtzioetako estereotipo sexistak baztertuz eta haur eta gazteei zuzenduriko edukiak bereziki zainduz.
- c) Emakumeek sustaturiko edo haiei zuzenduriko jarduera politiko, sozial eta kulturalen hedapena bermatzea, baita emakumeen jabeakuntza ahalbidetzen dutenak ere, berdintasun baldintzetan.



XV. KAPITULUA

Gizarte Zerbitzuak, zaintzak eta erantzunkidetasuna

44. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Tolosako Udalak, sexuari dagozkion desberdintasunak kontuan izanik, beharrezko dituzten laguntza eta gizarte zerbitzuak jarriko ditu bertako emakumeen eta gizonen eskura.

2. Aurreko paragrafoan aipaturiko behar horiek zehazteko legegintzaldi bakoitzaren hasieran diagnostiko bat egingo da.

3. Udalerriko bizitza ekonomiko eta sozialean zein gizarte-loturei begira, zaintza-jarduerek zer garrantzia duten ikusita, Udalak laguntza eta gizarte zerbitzuak eskaintzerakoan lehentasuna emango die haurrak eta pertsona ezinduak zaintzen dituztenei, eginkizun horietan emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna bultzatzeko.

45. artikulua. *Jarduketak.*

Aurreko artikuluan aipaturiko laguntzak bermatzeko, Udala, premien diagnostikoari egokituta, ondorengoez arduratuko da:

- a) Haurrak, zaharrak eta laguntza behar duten gainerako pertsonak zaintzea batez ere emakumeen ardura dela dioten estereotipoen inguruko sentsibilizazio lana egitea horiek baztertzeko.



- b) Laguntza sozialen, gizarte zerbitzuen eta beharrezko zaintza sistemen antolamendu, finantziario eta banaketan genero ikuspuntua kontuan hartzea, oraindik orain emakumeek zaintza jarduera horiekiko duten loturari aurre egiteko.
- c) Udalaren bitartez edo herriko beste erakundearen bitartez, herritarren eskura jarritako zaintza sistemak kalitatezkoak eta bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzen lagunduko dutenak izatea.
- d) Gizartean isolatuta dauden emakumeei –emakume izateagatik zaintza lanak bere gain hartu behar izan dituztelako– laguntza eta aukerak eskaintzea.

XVI. KAPITULUA

Emakumeen aurkako indarkeria

46. artikulua. *Definizio eta jarduteko marko orokorra.*

1. Emakumeen aurkako indarkeria oinarrizko giza eskubide baten urraketa da, baita duintasunarekiko eta osotasun fisiko eta moralarekiko irain bat ere. Horren guztiaren jatorrian zera dago, erasotzaileak bere sexua gainetik dagoenaren ustea botere desberdintasuneko harreman baten barruan. Definizio hori bat dator Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 50. artikuluan xedatutakoarekin.



2. Genero indarkeriaren arazoari aurre egiteko, Tolosako Udalak, bere eskumena diren esparruetan, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen VII. atalean zehazturiko betebeharrak zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen du, bai eta erakundeen arteko hitzarmenetan aurreikusitako zein etorkizunera begirako ekintzak, protokoloak, programak eta planak betetzeko konpromisoa ere.

47. artikulua. *Neurriak egokitzea.*

Genero indarkeria desagerrarazteko asmoz, udal gobernuak, Berdintasunerako Zerbitzuarekin eta Gizarte Zerbitzuen Sailarekin lankidetzan, Tolosan ikerketa, prebentzio, prestakuntza, eta biktimentzako arreta eta babes neurriak abian jarriko ditu, hain zuzen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005/4 Legearen 1. eta 2. ataletan jasoak dauden neurriak toki eremura egokituz.

48. artikulua. *Zuzeneko arretaren printzipioa.*

1. Udalak, genero indarkeriari aurre egiteko orduan, batez ere, biktimei laguntza eskaintzerako orduan, arreta zuzena eskainiko die (babes poliziala, lege-aholkularitza, laguntza psikologikoa, abegi-etxeak eta larrialdi zerbitzuak, laguntza ekonomikoa, etxebizitza, lan munduan txertatzea eta beren kargu dituzteen adingabeak hezteak), beharrezko jarduerak eraginkorrak izan daitezen Udalak erabakitakoari kalterik egin gabe.



2. Arreta zuzena emateak zera esan nahi du, Udalarena izango dela genero indarkeriaren biktimei laguntza ematearen ardura, ahal den neurrian eta, betiere, biktimei hala komeni bazaie.

XVII. KAPITULUA

Hiri- eta toki-plangintza

49. artikulua. *Xedapen orokorra.*

Tolosako Udalak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen lagunduko duten baldintzak sortzeko, garrantzitsutzat jotzen ditu espazioaren garapena eta lurzoruen erabilera politikak eta planak.

50. artikulua. *Politikak eta planak.*

Aurreko artikuluan adierazitako plan eta politikak sortu eta martxan jartzerakoan, besteak beste, egiazko berdintasuna eta emakume eta gizonen premia espezifikoak hartuko dira aintzat, honako alderdi hauei dagokienez: enplegua, zerbitzuetarako eta kultur bizitzarako sarbidea, hezkuntza eta familia ardurak, besteak beste, eta horretarako tokiko datuen eta dagozkion genero balorazioei begiratuko zaie.



XVIII. KAPITULUA

Etxebizitza

51. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Tolosako Udalak etxebizitza duin eta kalitatezkoa izatea pertsonen eta familien ongizaterako oinarrizko eskubidetzat hartzen du.

2. Horrekin batera, eskubide hori emakumeek eta gizonek maila berean goza dezaten, beharrezkotzat jotzen du emakumeek zailtasun handiagoak eta behar bereziak dituztela kontuan hartzea.

3. Azkenik, etxebizitza alokatu, eskuratu edo izateko eskubide bera aitortzen die emakumeei eta gizonei.

52. artikulua. *Jarduketak.*

1. Berdintasunean oinarrituta, etxebizitza duina izateko eskubidea gauzatzeko, udal gobernuak honako neurri hauek hartuko ditu:

a) Etxebizitza faltarik egon ez dadin beharrezko neurriak hartuko ditu, eta etxebizitzarik ez duten pertsoneri laguntza emango die, dituzten beharren eta zailtasunen arabera eta inor diskriminatu gabe.



b) Ahal duen neurrian, etxebizitza salneurriak behar adinako baliabiderik ez dutenentzat eskuragarri izan daitezen egokitzen saiatuko da.

c) Maileguak eta bestelako finantza eta kreditu laguntzak lortzerakoan emakumeek eta gizonek aukera berak izan ditzaten beharrezko neurriak hartuko ditu.

d) Etxebizitza propioa izanik, berau egoera kaskarrean duten adineko emakumeei arreta berezia eskainiko die.

XIX. KAPITULUA

Segurtasuna

53. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Tolosak emakumei zein gizonei segurtasunez eta nahi duten eran bizitzeko eskubidea aitortzen die, eta era berean aitortzen du eskubide horiek ezin direla erabat edo modu berean baliatu, arlo pribatuan zein publikoan, emakumeek eta gizonek ez badute segurtasunik edo mehatxatuta egon daitezkeela uste badute.

2. Emakumeek eta gizonek maiz segurtasunarekin loturiko hainbat arazori aurre egin behar dietela onartzen du eta arazo horiei ardura handiz egin behar zaiela aurre.



54. artikulua. *Jarduketak.*

Aurreko artikuluan aitorturiko eskubide eta desberdintasunak kontuan hartuta, Udalak honako hauek betetzeko konpromisoa hartuko ditu:

- a) Sexua, bolumenari buruzko estatistikak eta emakume eta gizonen segurtasunari eragiten dieten gorabeherak aintzat hartuta (pertsonek aurka egindako krimen larriak barne) azterketak egitea, kriminalitatearekiko beldurraren maila eta izaeraren berri izateko, edo beste segurtasunik ezaren iturrien berri izateko.
- b) Segurtasuna handitzea helburu duten estrategia eta ekintzak egitea, eta ingurunea (hala nola, garraio publikoen geltokiak, aparkalekuak eta argiteria publikoa) eta zaintza-lanak eta antzeko zerbitzuak hobetzeko estrategia, politika eta ekintzak gauzatzea.
- c) Osasuntsuagoak diren eta ingurunearekiko begirunea oinarri duten jokabide eta ohitura ereduak bultzatzea, egun gizartean nagusi den maskulinitate ereduaren gizonen beraien osasun eta ongizatearentzat kaltegarria baita.



XX. KAPITULUA

Mugikortasuna eta garraioa

55. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Mugikortasuna eta garraiobideak eskura izatea oinarrizko baldintzak dira emakumeek eta gizonek beren eskubideak erabiliz, lanak eta jarduerak egin, eta lana, hezkuntza, kultura eta oinarrizko zerbitzuak balia ditzaten.

2. Bestalde, mugikortasunari eta garraioari dagokionez, kontuan izan behar da emakumeek eta gizonek behar eta ohitura desberdinak izan ohi dituztela. Ohitura horien oinarrian diru-sarrerak, seme-alabekiko eta beren kargu dauden pertsonetikiko erantzukizunak edota lan-ordutegia daude, eta hori dela-eta, emakumeek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa gizonek baino.

56. artikulua. *Jarduketak.*

Aurreko artikuluan aipaturiko guztia kontuan izanik, Tolosako Udalak honako hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

- a) Herriko emakume eta gizonen behar espezifiko eta komunak asetzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izateko erabiltzaileen iritzi, behar, ikuspuntu eta esperientziak biltzea.



- b) Garraio publikoa pixkanaka hobetzeko neurriak sustatzea, baita lotura intermodalak ere; horiek guztiak erregularrak, merkeak, seguruak eta erabilgarriak izango dira eta ingurumena errespetatuko dute.

XXI. KAPITULUA

Ingurumena

57. artikulua. *Xedapen orokorra.*

1. Udalak bere gain hartzen du ingurumenaren kalitatea hobetzeko ardura eta horrela hondakinen, zarataren, airearen kalitatearen, bioaniztasunaren eta klima aldaketaren inguruko neurriak hartuko ditu.

2. Emakumeek eta gizonek udalak ingurumenari dagokionez ematen dituen zerbitzuak eta politikak baliatzeko eskubide legala dute, eta horretarako, kontuan hartu beharra dago emakumeek eta gizonek bizitzeko duten modu desberdinak dituztela, baita herriko zerbitzuak eta aire libreko espazioak erabiltzeko ohitura desberdinak ere, eta ingurumen arazo desberdinei egin behar dietela aurre.



58. artikulua. *Jarduketak.*

Aurreko artikuluan jasotakoa kontuan hartuta, Udalak, ingurumenari dagozkion politika eta zerbitzuei dagokienez, emakumeen eta gizonen ohitura eta beharrei arreta bera eskaintzeko eta belaunaldien arteko solidaritate printzipioa kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du.

XXII. KAPITULUA

Senidetzeak eta nazioarteko lankidetzak

59. artikulua. *Xedapen orokorra.*

Tolosako Udalak senidetzea eta Europako herrialdeekiko eta nazioarteko herrialdeekiko lankidetzak beharrezkotzat jotzen ditu herritarren harremanak bultzatu eta mugez gaindi elkarren arteko komunikazioa eta ulermena bultzatzeko.

60. artikulua. *Jarduketak.*

Europar eta nazioarteko senidetzeari eta lankidetzari dagokionez, Udalak honako konpromiso hau hartzen du:

- a) Jatorri desberdineko emakumeek eta gizonek jarduera horietan parte har dezaten bultzatzea.



- b) European eta mundu osoan dituzten senidetzeak eta harremanak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko baliatzea.

- c) Deszentralizaturiko lankidetzak ekintzetan generoa kontuan hartzea.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra

Ordenantza, bere behin betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean.